

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako higiezinaren gaineko zergaren 2020ko erroldak

Alkatearen ekainaren 16ko 84/2020 Dekretuaren bidez osaturik Berantevillako hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko erroldak, jendaurrean jartzen dira, Ondasun higiezinaren gaineko zergaren Foru Arauak 21.2. artikuluan xedatutakoa betez; udal bulegoetan egongo dira erakusgai, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Errolda horiek udal bulegoetan kontsultatu ahal izango dira, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezen.

Udaletxera joan nahi duenak, COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko du aldeztu aurretik, 945337059 telefonora deituta edo aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus posta elektronikora idatzita.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2020ko ekainaren 16a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY